



IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA: BITARTEKO IRAKASLE FUNTZIONARIOAK ETA ALDI BATERAKO HEZITZAILEAK

COVID-19

Zirkular honen xedea da zehaztea zer irizpide jarraituko diren COVID-19rekin zerikusia duten arrazoiengatik etxean konfinatuta edo aldi baterako ezintasunean dauden bitarteko irakasle funtzionarioekin (egonkortuak izan ez direnak) eta aldi baterako hezitzaileekin, betiere ikasturte hasierako esleipen-prozesuetan plaza bat esleitu bazaie 2021/09/01etik aurrerako ondorioekin.

Horretarako, arestian deskribatutako egoeretan dauden langileek frogagiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Etxean konfinatu izanaren egiaztatzea (medikuaren ziurtagiria edo ikastetxearen Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) erreferentziazko koordinatzailearen ziurtagiria).
- Aldi baterako ezintasunaren arrazoia egiaztatzen duen baja-agiria.

Langile horiek **ikastetxera** bidali beharko dute jatorrizko dokumentazioa, eta horren kopia aurreratu dagokion **ordezkaritzaren posta elektronikora**:

- Funtzionarioak:
Lehen Hezkuntza: arabalh@euskadi.eus, lhgipuzkoa@euskadi.eus eta bizkaialh@euskadi.eus
Bigarren Hezkuntza: arababh@euskadi.eus, bhgipuzkoa@euskadi.eus eta bizkaiabh@euskadi.eus
- Hezitzaileak: arabaei@euskadi.eus, eigipuzkoa@euskadi.eus eta bizkaiaei@euskadi.eus

Dokumentazioa 2021/09/01ean ez badute, eta lortzen duten bitartean, langileek zinpeko adierazpen bat egin beharko dute beren egoera azaltzeko, eta lehen adierazitako moduan bidali beharko dute. Zinpeko deklarazioak ez ditu langileak justifikazio-agiriak aurkezteko betebeharretik aske utziko. Dokumentazio hori aurkeztu ezean, justifikaziorik gabekotzat joko da lanpostuaz ez jabetzea, indarrean dagoen araudiaren arabera horrek dakartzan ondorioekin.

Etxeko konfinamendua amaitzen denean edo COVID-19rekin lotutako aldi baterako ezintasunaren alta jasotzen denean, langileek egiaztatzea aurkeztu beharko dituzte, gainontzeko frogagiriaren modu berean. Hau da, langileek jatorrizko dokumentazioa lantokira bidali beharko dute, eta kopia dagokion ordezkaritzaren posta elektronikora aurreratu.

Kasu horietan, esleitutako lanpostua gordeko zaie langile horiei, lanpostua hartzea eragotzi dien egoera amaitu arte. Egoera hori amaitutakoan, bitarteko funtzionarioen izendapena edo lan-kontratua egingo da eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaie.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO